

Post-it teknika

Deskribapena

Teknika honek beste bi hartzen ditu bere barruan: **ideia-jasa** (Brainstorming) eta **kidetasun-txartelak**. Teknika honen bidez, taldeko kide guztiek, banan-banan, beren ekarpena adierazten dute besteen aurrean, beren ideiak adierazteko inolako mugarik jarri gabe. Erabil daiteke hobekuntza prozesuen inguruko ideiak sortzeko, arazoek konponbideak aurkitzeko edo helburu eta xede komunak bilatzeko etab.

Hasieran, agertutako ideia guztiak jasoko dira. Idatziz eta era anonimoan egiten denez, honek ideia guztien azalpena errazten du. Ondoren egiten den bateratze-lanean argi geratu ez diren ideiak argitzeko aukera egongo da.

Ideia-jasa

- 1. urratsa.** - Esaldi batean zehaztea arazoa edo gaia. Ideia-jasaren asmoa argitu eta komentatu ondoren erreferentzia-esaldia leku nabarmen batean kokatuko da.
- 2. urratsa.** - Taldekide bakoitzak bere ideiak, nahi dituen guztiak, ekarriko ditu, ideia bakoitza post-it batean idatzirik. Ideia guztiak ohol batean itsatsiko dira.

Kidetasun-txartelak

Multzoka batutakoan, ideia guztiak esaldi bakar batera ekarri behar dira. Aurkeztutako ideia guzti-guztiak jaso behar dira nahitaez esaldi horretan. Ez da ideien laburpena, baizik eta ideia guztiak batzen dituen idazki bat.

Ideien kidetasuna finkatzea neketsua da ideia berdinak ezin baitira agertu kidetasun-multzo ezberdinetan. Kidetasun-txartel bakoitzak ondo definituko du bere ideia-multzoa.

Kidetasun-txartel horiek zehatz-mehatz egiteko edo aztertzeko, [SEBEA metodologia](#) erabiltzen da.